

## BESTELAKO XEDAPENAK

### JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

## 4790

*EBAZPENA, 2012ko irailaren 25ekoa, Lehendakaritzako idazkari nagusiarena, zeinen bidez argitaratzen baita Estatuko Administrazioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak osatutako Aldebiko Lankidetzaren Akordioa, transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeko eta haien eskubideak aitortzeko ekainaren 28ko 14/2012 Legeari buruzkoa.*

Konstituzio Auzitegiaren urriaren 3ko 2/1979 Lege Organikoaren 33.2 artikuluan aurreikusten den erabakia hartu ondoren, eta artikuluko horren c) idatzi-zatian ezarritakoarekin bat, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea Estatuko Administrazioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak osatutako Aldebiko Lankidetzaren Akordioa –transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzen dituen ekainaren 28ko 14/2012 Legeari buruzkoa–, zein eranskin modura atxikitzen baitzaio ebazpen honi.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko irailaren 25a.

Lehendakaritzako idazkari nagusia,  
JOSÉ MANUEL SALINERO FEIJOO.

## ERANSKINA

ESTATUKO ADMINISTRAZIOAREN ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO  
ADMINISTRAZIOAREN ARTEKO ALDEBIKO LANKIDETZA BATZORDEA

AKORDIOA, Estatuko Administrazioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak osatutako Aldebiko Lankidetzaren Batzordearena, transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeko eta haien eskubideak aitortzeko ekainaren 28ko 14/2012 Legeari buruzkoa.

Estatuko Administrazioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak osatutako Aldebiko Lankidetzaren Batzordeak, 2012ko irailaren 24an egindako bilkuran, akordio hau hartu zuen:

1.– Transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko ekainaren 28ko 14/2012 Legearen zenbait artikulua direla-eta sortutako desadostasunak ebazteko negoziatioei ekitea; hona hemen artikuluko: 3. eta 7. artikulukoak.

2.– Lantalde bat izendatzea, Aldebiko Lankidetzaren Batzordeari konponbide bat proposatzeko.

3.– Urriaren 3ko 2/1979 Lege Organikoaren 33.2 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, jakinaraztea akordio hau Konstituzio Auzitegiari, 2012ko urriaren 6a baino lehen; eta horretaz gain, Estatuko Aldizkari Ofizialean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Madril, 2012ko irailaren 24a.

Ogasun eta Herri Administrazioetako ministroa,  
CRISTÓBAL MONTORO ROMERO.

Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazioetako sailburua,  
IDOIA MENDIA CUEVA.